azaroaren 11ko 1/1997 Dekretu Legegilean ezarritakoa jarraituta egingo da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Agindu hau indarrean sartzean, turismoaren arloko edukiak dituzten ikastaro, jardunaldi eta mintegiak egiteko laguntzak ematea arautzen dituen 2000ko ekainaren 30eko Industria, Merkataritza eta Turismo Sailburuaren Agindua indargabetu egingo da.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehena.***– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

***Bigarrena.***– Agindu honen aurka, Euskadiko Auzitegi Nagusian Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa ezarri ahal izango da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita, bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko apirilaren 16a.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

A la entrada en vigor de la presente Orden quedará derogada la Orden de 30 de junio de 2000, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula la concesión de ayudas para la realización de cursos, jornadas y seminarios de contenido turístico.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– La presente Orden entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

***Segunda.***– Contra la presente Orden podrá interponerse recurso-contencioso-Administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a de 16 de abril de 2003.

El Consejero de Industria, Comercio y Turismo,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

## NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

### Zk-2785

97/2003 DEKRETUA, apirilaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Sasoiko Lanari Buruzko Erakunde Arteko Mahaia sortu eta arautzen duena.

Eusko Legebiltzarrak, 2002ko abenduaren 12ko osoko bilkuran, premiako eskea egin zion Eusko Jaurlaritzari: batetik, sasoiko langileei zuzendutako Plan Integrala egitea; eta, bestetik, Plan honetako estrategia eta helburu guztiak koordinatzeaz arduratuko den Erakunde arteko Mahaia sortzea.

Sasoiko lanak diziplina anitzekin zerikusia du eta, beraz, Sail ezberdinen eskumenetan eragina izan dezake; dena dela, aparteko elementu elkartzailea barneratzen du aldi berean, hots, soilik nekazaritza-jardueran kokatzen dela.

Egin behar diren lanek Eusko Legebiltzarrak eskatutako Plan Integrala baino harago joatea egingo dute etorkizunean, eta baita Jaurlaritzako sail ezberdinen artean lankidetza iraunkorra finkatzea ere. Sail hauek, da-

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

### N°-2785

DECRETO 97/2003, de 29 de abril, por el que se crea y regula la Mesa Interinstitucional sobre Trabajo Temporero de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El Parlamento Vasco, en sesión plenaria de fecha 12 de diciembre del 2002, insta al Gobierno Vasco a la elaboración de un Plan Integral de atención a los trabajadores temporeros, y a la creación de una Mesa Interinstitucional a la que corresponderá la coordinación de todas las estrategias y objetivos del mencionado Plan.

Siendo la temporería una problemática de carácter multidisciplinar, susceptible de afectar al ámbito competencial de diferentes Departamentos, posee sin embargo una elemento aglutinador único, cual es su ubicación exclusiva en la actividad agraria.

Los trabajos a realizar requerirán en el futuro ir más allá del Plan integral demandado por el Parlamento Vasco, y requerirá de una colaboración continuada de diferentes departamentos del Gobierno, los cuales, en

gozkien eskumenen arabera, elkarrekintzan jardun beharko dute, nekazaritzan diharduten sasoiko langileen eta hauen familien lan- eta gizarteratze-baldintzak etengabe hobetzen joan daitezen.

Sasoiko langileek gizarte-eremu guztietan dituzte beharrak eta hauei behar bezala erantzun behar zaie. Izan ere, sasoiko langileek ostatu, seme-alaben eskolatze, baztertze-arrisku, etab.ekin erlazionatutako arazoak izan ditzakete eta, ondorioz, euren nekazaritza-jardueran oztopoak aurki ditzakete. Laborantza ezberdinetan sasoiko langile hauek Euskal Autonomia Erkidegoan egun garatzen duten eta etorkizunean garatuko duten nekazaritza-jarduerarako funtsezkoak dira. Hau delaeta, Nekazaritza eta Arrantza Sailak langile hauen egungo egoera normalizatzeko beharrezkoak diren neurri guztiak abian jartzea proposatu du. Jardun-bide hauek uztartzeak enplegua sustatzea ekarriko du eta honek, aldi berean, nekazaritza-langilearen irudia duin bihurtuko du.

Sasoiko lanaren gaiari Eusko Jaurlaritzak heldu behar diola ikusi da, gaur egun nekazaritzako sasoiko lana jada EAE osoan ere hedatu baita; izan ere, Gipuzkoa eta Bizkaian ezaugarri hauek dituen enplegu-motak gora egin duela atzeman da, orain urte gutxi arte nagusiki Araban garatzen zen bitartean.

Aipatutako alderdiak kontuan izanik, beharrezkoa deritzogu egoera honetan zerikusia duten erakunde guztiek modu aktiboan parte hartzeari eta euren ahaleginak bateratzeari, honela biztanle hauen partaidetza, ongizatea eta, azken finean, gizarteratzea hobetu eta bermatu ahal izango baitira. Erakunde arteko koordinazio hau aurrera eraman ahal izateko, beharrezkoa da partaidetza eta elkarrizketa bideratuko dituen erakunde arteko organoa sortzea. Hau kontuan hartuta, Dekretu honen xedea Euskal Autonomia Erkidegoko Sasoiko Lanari buruzko Erakunde arteko Mahaia sortzea eta arautzea da; Mahai hau Nekazaritza eta Arrantza Sailari atxikiko zaio eta, ondorioz, Sail horretako egiturari buruzko Dekretua aldatu beharko da.

Hortaz, Nekazaritza eta Arrantza Sailburuak proposatuta, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2003ko apirilaren 29an egindako bileran erabaki eta onetsi ondoren, honakoa

XEDATU DUT:

## I. KAPITULUA
## SORRERA ETA FUNTZIOAK

*1. artikulua.–* Sorrera eta atxikipena.

Sasoiko Lanari buruzko Erakunde arteko Mahaia sortuko da eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saileko Nekazaritza eta Landa Garapeneko Sailburuordetzari atxikiko zaio. Atxikipen honek ez du esan nahi Mahaia Sail horren egitura hierarkikoan barneratuko denik.

función de sus competencias deberán interactuar con el objetivo de lograr una permanente mejora de las condiciones laborales y de integración social de los trabajadores temporales agrarios y sus familias.

Los trabajadores temporeros concitan diferentes necesidades en todos los ámbitos sociales que necesitan ser atendidas correctamente. Así, los problemas relacionados con el alojamiento, la escolarización de los hijos e hijas, los riesgos de exclusión etc. a los que pueden verse sometidos, dificultan un normal desenvolvimiento de la actividad profesional agraria de estos trabajadores temporeros, los cuales, constituyen, en diferentes cultivos, pieza fundamental de la actividad agraria, actual y futura de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Por ello el Departamento de Agricultura y Pesca se propone activar todas aquellas medidas que sean necesarias para normalizar su situación actual. La convergencia de estas líneas de actuación desembocará en la promoción del empleo, dignificando la figura del trabajador agrícola.

La necesidad de abordar el problema del temporerismo desde el Gobierno Vasco viene demandada, por cuanto, hoy en día el ámbito de trabajo temporal agrario se extiende a toda la C.A.P.V., observándose un emergente empleo de estas características en Gipuzkoa y Bizkaia, habiéndose centrado hasta hace pocos años fundamentalmente en Alava.

Es preciso, por todo lo señalado, que todas las instituciones afectadas participen de forma activa y aglutinen esfuerzos de cara a mejorar y garantizar la participación, el bienestar, y en definitiva, la integración social de esta población. Para que esta coordinación entre instituciones se lleve a cabo es necesario crear un órgano interinstitucional que sirva de cauce de participación y diálogo. En este sentido, es objeto del presente Decreto la creación y regulación de la Mesa Interinstitucional sobre Trabajo Temporero de la Comunidad Autónoma del País Vasco que quedará adscrita al Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco que obliga a una modificación del Decreto de estructura del citado Departamento.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Agricultura y Pesca, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión del día 29 de abril de 2003,

DISPONGO

## CAPÍTULO I
## CREACIÓN Y FUNCIONES

*Artículo 1.–* Creación y adscripción.

Se crea la Mesa Interinstitucional sobre Trabajo Temporero que se adscribe a la Viceconsejería de Agricultura y Desarrollo Rural del Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco. Esta adscripción no conlleva la integración en la estructura jerárquica del citado Departamento.

*2. artikulua.–* Xedea eta eremua.

Sasoiko Lanari buruzko Erakunde arteko Mahaia organo plurala izango da eta Euskal Autonomia Erkidego osoko Sasoiko Langileen arretarako Plan Integrala izango dena garatzeaz arduratuko da.

Era berean, Plan horren jarraipena egiterakoan haruntzago ere begiratuko du eta Jaurlaritzako sail ezberdinen eta beste erakunde batzuen arteko koordinazioa iraunkorra izan dadin lan egingo du, nekazaritzako sasoiko langileen eta hauen familien gizarte- eta lan-baldintzak aztertu eta etengabe hobetzeko asmoz.

*3. artikulua.–* Funtzioak.

Sasoiko Lanari buruzko Erakunde arteko Mahaiari dagokio honakoak egitea:

a) Sasoiko Langileen arretarako Plan Integrala garatzea.

b) Plan Integralean biltzen diren jarduketak koordinatzea eta sustatzea.

c) Sasoiko langileei dagokien indarreko arautegia garatu eta aplikatzeko beharrezko neurriak hartzea.

d) Nekazaritzako sasoiko langileen gizarte- eta lanbaldintzak etengabe jarraitzea eta beharrezkoa den kasuetan neurri zuzentzaileak proposatzea.

e) Antzeko helburuak dituzten beste partaidetza-foro batzuekin harremanak finkatzea.

f) Esleitzen zaizkion eta sasoiko langileekin zerikusia duten beste funtzio batzuk betetzea.

II. KAPITULUA
MAHAIAREN OSAERA

*4. artikulua.–* Lehendakaritza.

Sasoiko Lanari buruzko Erakunde arteko Mahaiko lehendakaria Nekazaritza eta Arrantzako Sailburua izango da. Honen funtzioak honakoak izango dira:

a) Sasoiko Lanari buruzko Erakunde arteko Mahaiaren ordezkari izatea.

b) Ohiko bilkuren deialdiak egitea eta eguneko aztergaien zerrenda garatzea.

c) Bilkuretan buru izatea eta horiei amaiera ematea, eta baita eztabaidak bideratzea ere.

d) Berdinketa denetan bozketa ebaztea.

e) Erabakien aktak eta ziurtagiriak ikus-onestea.

f) Lehendakari gisa egin behar dituen ekintza guztiak garatzea.

*5. artikulua.–* Lehendakariordetza.

Lehendakariordea Nekazaritza eta Landa Garapeneko Sailburuordea izango da. Honen funtzioak honakoak izango dira:

*Artículo 2.–* Objeto y ámbito.

La Mesa Interinstitucional sobre Trabajo Temporero se constituye como órgano plural cuyo objeto será la elaboración del futuro Plan Integral de Atención a los Trabajadores Temporeros del conjunto de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Asimismo, trabajará con un horizonte más lejano en el tiempo en el seguimiento del propio Plan, así como en la coordinación permanente de los diferentes departamentos del Gobierno y otras instituciones con el objetivo del análisis y mejora permanente de las condiciones sociolaborales de los trabajadores temporales agrarios y sus familias.

*Artículo 3.–* Funciones.

Le corresponderá a la Mesa Interinstitucional sobre Trabajo Temporero:

a) Elaborar el Plan Integral de Atención a los Trabajadores Temporeros.

b) Coordinar e impulsar las actuaciones contenidas en el Plan Integral.

c) Adoptar las medidas necesarias para el desarrollo y aplicación de la normativa vigente en relación con la población temporera.

d) Efectuar un seguimiento permanente de las condiciones sociolaborales de los trabajadores temporales agrarios y proponer medidas correctoras en los casos en que se requiera.

e) Establecer relaciones con otros foros de participación con objetivos similares.

f) Aquellas otras funciones que le sean asignadas en relación con la población temporera.

CAPÍTULO II
COMPOSICIÓN DE LA MESA

*Artículo 4.–* Presidencia.

La Presidencia de la Mesa Interinstitucional sobre Trabajo Temporero corresponderá al Consejero de Agricultura y Pesca, que tendrá como funciones:

a) Ostentar la representación de la Mesa Interinstitucional sobre Trabajo Temporero.

b) Realizar las convocatorias de sesiones ordinarias, así como fijar el orden del día.

c) Presidir y levantar las sesiones, así como moderar el desarrollo de los debates.

d) Dirimir la votación en caso de empate.

e) Visar las actas y certificaciones de los acuerdos.

f) Ejercer cuantas acciones sean inherentes a su condición de Presidente.

*Artículo 5.–* Vicepresidencia.

La Vicepresidencia corresponderá al Viceconsejero de Agricultura y Desarrollo Rural, que tendrá como funciones:

a) Lehendakaria eskuduntza guztietan ordezkatzea.

b) Nekazaritza eta Arrantza Sailaren ordezkari-funtzioak betetzea, lehendakaria ordezkatzen ari ez denetan.

6. ***artikulua.***– Idazkaria.

Lehendakariak berak izendatuko da, bere Saileko langileen artetik, eta honako funtzioak izango ditu:

a) Bileretara joatea; hauetan hitza izango du, baina botorik ez.

b) Lehendakariak aginduta, bilkuren deialdia egitea.

c) Gaiak nola jorratu prestatzea.

d) Idazkari-karguak dituen bestelako funtzioak betetzea.

e) Ospatutako bilkuren aktak idatzi eta jasotzea.

7. ***artikulua.***– Bokalak.

1.– Honakoak izango dira Erakunde arteko Mahaiko bokalak:

a) Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko ordezkari bat.

b) Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantza Saileko ordezkari bat.

c) Arabako Foru Aldundiko ordezkari bat.

d) Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkari bat.

e) Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkari bat.

f) Euskal Udalen Elkarteko (EUDEL) ordezkari bat.

g) Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-sindikatu garrantzitsueneko ordezkari bat, eta historian zehar arazo honekin konpromisoa hartzeagatik gehien nabarmendu diren beste gizarte-erakunde batzuetako ordezkari bat; azken hau Mahaiko Lehendakariak izendatuko du.

h)Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuetako (Hezkuntza Saila, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Osasun Saila etab.) ordezkariak edo Lan Ikuskaritza eta Gizarte Segurantzako ordezkariak beharrezkoak badira, edo, hala badagokio, erakunde arteko mahaiko kide izan gabe gaiarekin zerikusia duten beste ordezkari batzuk behar badira, Lehendakariak berak deitu ahal izango ditu; hauek gainerako bokalen eskubide eta betebehar berak izango dituzte eta arazo hau tratatzeko baino ez dira deituko.

a) Suplir al Presidente en la totalidad de las atribuciones.

b) Ejercer las funciones de representante del Departamento de Agricultura y Pesca cuando no asuma por suplencia las funciones del Presidente.

***Artículo*** 6.– Secretario.

Será nombrado por el Presidente de entre el personal de su Departamento y tendrá las siguientes funciones:

a) Asistir a las reuniones con voz pero sin voto.

b) Efectuar la convocatoria de las sesiones por orden del Presidente.

c) Preparar el despacho de los asuntos.

d) Cuantas otras funciones sean inherentes a su condición de Secretario.

e) Redacción y levantamiento de las actas de las reuniones celebradas.

***Artículo*** 7.– Vocales.

1.– Son vocales de la Mesa Interinstitucional los siguientes:

a) Un representante del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

b) Un representante del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social.

c) Un representante de la Diputación Foral de Alava.

d) Un representante de la Diputación Foral de Bizkaia.

e) Un representante de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

f) Un representante de la Asociación de Municipios Vascos-EUDEL.

g) Un representante del sindicalismo agrario más representativo de la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como un representante de aquellas organizaciones sociales que más se hayan caracterizado por su compromiso histórico con esta problemática, designado por el Presidente de la Mesa.

h) En aquellos asuntos cuya especificidad requiera la presencia de representantes de los Departamentos de Interior, Educación, Universidades e Investigación y Sanidad del Gobierno Vasco, y/o representantes de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social, o en su caso de otros eventualmente concernidos que no formen parte de la Mesa Interinstitucional, podrán ser convocados a instancias del Presidente de la misma, a efectos exclusivamente del tratamiento de dicha problemática con los mismos derechos y obligaciones que el resto de los Vocales de la Mesa.

2.– Aurreko paragrafoan adierazitako Sail eta Erakundeetako ordezkariek gutxienez Zuzendari-maila izan behar dute.

*8. artikulua.*– Bokalen funtzioak.

a) Aldez aurretik eta nahiko denboraz deialdia jasotzea; bertan, bilkurei dagozkien eguneko aztergaien zerrenda eta horietako gaiei buruzko informazioa bilduko dira.

b) Bilkuretako eztabaidetan parte hartzea. Bilkuretan parte hartzen duten pertsonek deialdia jaso eta euren eskumenekoak diren gaiei dagozkien eztabaidetan soilik parte hartu ahal izango dute, 7. artikuluko h) idatz-zatian ezarritakoarekin bat etorriz.

c) Botoa emateko eskubidea erabiltzea eta, hala badagokio, boto hori justifikatzen duten arrazoiak azaltzea.

d) Eskaerak eta galderak egitea.

e) Bokal izateak dituen gainerako funtzioak betetzea.

*9. artikulua.*– Funtzionamendua.

Erakunde arteko Mahaiaren funtzionamendua Dekretu honetan ezarritakoak eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko II. tituluko II. kapituluan ezarritakoak arautuko dute.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Nekazaritza eta Arrantzako Sailburuari ahalmena ematen zaio Dekretu honetan ezarritakoa garatu eta gauzatu dadin beharrezkoak diren xedapen eta ekintza guztiak emateko.

***Bigarrena.***– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2003ko apirilaren 29an.

Lehendakaria,
JUAN JOSE IBARRETXE MARKUARTU.

Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
GONZALO SAENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

2.– Los representantes de los Departamentos e Instituciones mencionados en el párrafo anterior deberán ostentar el rango mínimo de Director.

*Artículo 8.*– Corresponderá a los vocales.

a) Recibir, con la antelación suficiente, la convocatoria conteniendo el orden del día de las reuniones y la información sobre los temas del mismo.

b) Participar en los debates de las reuniones. Las personas que participen en las reuniones con arreglo a lo establecido en el apartado h) del artículo 7, únicamente podrán participar en el debate de los asuntos que afecten a materias de su competencia para los que hayan sido convocados.

c) Ejercer su derecho al voto y expresar, en su caso, el sentido y motivos que lo justifican.

d) Formular ruegos y preguntas.

e) Cuantas otras funciones sean inherentes a su condición de vocal

*Artículo 9.*– Funcionamiento.

El funcionamiento de la Mesa Interinstitucional se regirá por lo establecido en el presente Decreto y en el Capítulo II del Título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– Se faculta al Consejero de Agricultura y Pesca para dictar cuantas disposiciones y actos sean necesarios para el desarrollo y ejecución de lo establecido en el presente Decreto.

***Segunda.***– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 29 de abril de 2003.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

EL Consejero de Agricultura y Pesca,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.